



DONOSTIKO

EUSKAL INDAR-NEURTZEETAN

EGINTZA

EUSKAL-ITZ jostaldien Batzarrea dator gaur kontu ematera leku ontan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakua dan aurten izkribatzaleen indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duben sari emaldia.

Arreta aundiz ikusi ondorean aurkestu diran moldaera guztiak, Batzarreak erabaki du era ontan:

Lenbiziko zatian irabazi du *aldeera* Biktoriano Iraola jaunak «Errege besperan» izentzat duben idazti egokia gatik.

Bigarren zatian eraman du *saria* Manuel Lekuona Echa beguren jaunak «Ilko altzera» azalkaitzat duten neurtitz sutsu ta ederra gatik.

Aldeerak irabazi dituzte: Biktor Garitaonandia ta Jose Elzo Azpiazu jaunak, «Arantzazu» ta «Zoatz, zoatz choricho» izendatutako neurtitz ederra gatik.

Aipamen onragarriak irabazi dituzte: Jose Elizondo, Jose Elzo Azpiazu, Juan Mujica Laskibar, Luis Jauregui ta Luis Latierro jaunak, «Joaira», «Atozkit», «Poz aldiak», «Maitasun indarrak» eta «Karnaba» izendatutako neurtitz egokia gatik.

Gañera, indar-neurtzez kanpora, len iru aldiz gai ontan bertan saritua izan dalako, eman zayo *aipamen onragarria* Emiliano Mujika jaunari «¡Ama!» izentzat duben neurtitz samur etaapañagatik.

Irugarren zatian eraman du *saria* Juan Mujika Laskibar jaunak, «Euskal jolas pillota» azalkaitzat duben idazti gain gañekoa gatik.

Seigarren zatian irabazi du *aldeera* Biktoriano Iraola jaunak, Ramon Artola gure lagun maitetsuaren omenian egin dituben neurtitz apaña gatik.

Donostian 1916-^{garren} urteko Abendua'ren 25-an.

TORIBIO ALZAGA

Goarpelaria.

ADRIÁN LOYARTE

Batzar-burua.

